

OSTIRALETAKO MERENDOLAK ETA LARUNBATETAKO TABERNA

Gure proposamena ikasleek ikasbidaira joateko finantziarioa lortzeko ekintzak dira. Horretarako, bi ekintza egingo dira. Alde batetik, ostiraletan kurtso txikiagoentzako merendolak eskeiniko ditugu. Bestetik, eskola kirola ikastolan egiten denean, taberna bat antolatuko dugu. Ekintza hauek, ikasleek antolatutakoak izango dira, baita zerbitzua eskeiniko dutena ere.

Proposamenaren antolaketa ona egiteko, ikasleak taldeak antolatu behar dira. Lehenik, kudeaketa taldeak antolatu behar dira. Kontabilitatea egiten duen taldea, erosketak egiteaz arduratzen dena, zein ikasle talderen txanda da merendola edo taberna antolatzeko, eta merendolen kasuan, posta elektronikoa kudetatu behar da, bezeroekin, gurasoekin, kontaktuan jartzeko.

Merendolei dagokionez, normalean, merendolak ostiraletan eskola ondoren egiten direnez, ikasleok ere ostiraletan egitea proposa iruditzen zaigu. Horrez gain, Batx 2ko ikasleak HH eta LHko ikasleak baino lehenago ateratzen gara gelatik. Ondorioz, zerbitzua eskeini eta klaseak ekintza osagarriak dira, beraz, biak egin ditzazkegu. Horrez gain, merendolak egiterako garaian derrigorrezkoa da klase guztia gonbidatzea, inklusibismoa sustatzeko. Ostiralero, bi merendola egin izango ahal dira gehienez.

Erabiliko genituzkeen espazioak ikastolaren eremuak lirateke, haiek gauzatutako ekintza bat finantziatzeko denez, lortutako irabazien %-ko bat haientzat izango litzateke eta trukean ikastolaren eremua erabili ahal izango genuke.

Horrez gain, guk eskaintzen dugun zerbitzua mesedegarria da, bai Batx 2ko ikasleentzat zein zerbitzua jasotzen duten, ikastolako familientzat. Ikasleek, ikasbidaia finantzatzeko bide proposa da, eta aldi berean lan mundua zer den ikasteko aukera paregabea. Gurasoentzat ekartzen dituzten onurak aldiz, dirua gertuko pertsonen ematea da, ikasleekin harremana Txikipark bateko langileenganakoa baino gertuagoko eta ikastolan bertan izatea da. Ikastolak ere hainbat onura izango lituzke, esate baterako, ikastola kanpoko txikiparketako autobusez ez litzateke beteko.

Gure proposamenaren ordutegia ondoregoa litzateke:

- 15:15-16:20: Ikasle arduradunek merendola prestatu. Mahaiak eta aulkiak antolatu, janaria prestatu, etab.
- 16:20-16:30: 2-3 ikasle arduradun, ikasle gazteen bila joan behar dira.

- 16:30–17:00 inguru: Ikasle gazteenak askaria jan.
- 17:00–18:30: Batx 2koek txikientzako jolasak prestatzen dituzte.
- 18:30–19:00: Pastela jan eta gurasoak haurren bila etorri.

Tabernari dagokionez, planteamendua desberdina da. Gure proposamena, larunbatetan, ikastolako taberna zegoen lekuan ikasleok taberna jartzea da. Eremu hori erabili ahal izateko irabazien %-ko bat ere ikastolarentzat litzateke. Horrez gain, ia larunbatero ikastolan eskola kirola egoten denez, gurasoek eta hurrek hamaiketakoa egiteko aukera da. Ikasle talde bat egongo litzateke astero eta gainerako ekintzak egonogo balira, ikastolako ate irekiak adibidez, talde gehiago egon daitezke.

Tabernan hainbat produktu salduko genituzke: Kafea, freskagarriak, txaskiak, patatak eta patata tortilak. Horiek lortzeko aurretik erosketak egin beharko lirateke, baina patata tortilak egunean lortu behar direnez, aurretik enkargatu behar dira eta egunean bertan talde arduradunaren hainbat partaidek Juantxo tabernara joan beharko lukete tortilen bila, gero ikastolara igotzeko.

Azkenik, txanda bakoitza goizeko 9:30etatik 13:00tara inguru izango litzateke. Baina tarte horretan, ez lirateke tabernan egotea mugatu behar; izan ere, gurasoek haien seme-alabak ikusi nahi dituztenez, kantxetara gerturatu behar lirateke, haiei zuzenean eskatzera.

Ikasbidaia amaitu ondoren, enpresa itxi beharrean hurrengo ikasbidaia antolatzen duten ikaslen menpe geldituko litzateke gure enpresa. Haiei erakutsi beharko litzaieke antolaketa nola egiten den, eta jarduera bakoitza ere bai.